

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

**Udaltzaingoan bitarteko agenteen lan-poltsa eratzeko deialdia. (Oinarrizko Eskala eta C-1 Sailkapen-Taldea), merezimendu-lehiaketa bidezko sarbide libreko sistemaren bidez.**

Basauriko Alkateak 3908/2019 Dekretua eman du, urriaren 25eko datarekin. Dekretu horrek zera dio:

«Kontuan izanda euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetze-ko araudia onetsi zuen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren XII. Kapitulua xedatutakoa.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. Tituluaren IV. Kapitulua langileak hautatzeari buruz xedatutakoarekin bat etorrira. Eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 artikulua —apirilaren 21eko 11/1999 Legeak ezarritako aldaketen arabera— aitortutako eskumenetan oinarrituta, Alkatetza honek zera,

**XEDATZEN DU:**

*Lehenengoa:* Udaltzaingoan bitarteko agenteen lan- poltsa eratzeko oinarriak deialdia onestea (Oinarrizko Eskala eta C-1 Sailkapen-Taldea).

*Bigarrena:* Onestea, era berean, deialdi hori arautuko duten oinarriak. Dekretu honi erantsita doaz.

*Hirugarrena:* Oinarriok Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratzeko agindua ematea.

*Laugarrena:* Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, berau argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, hala nahi izanez gero, berraztertze-ko errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluaekin bat.

Basaurin, 2019ko urriaren 25ean. —Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



## ERANSKINA

**BASAURIKO UDALTZAINGOAN BITARTEKO AGENTEEN  
LAN-POLTSA ERATZEKO OINARRIAK  
(OINARRIZKO ESKALA ETA C-1 SAILKAPEN-TALDEA)****Lehenengoa. — *Deialdiaren xedea eta lanpostuaren eginkizunak***

Basauriko Udaltzaingoan bitarteko agenteen lan-poltsa eratzeko hautapen-prozesu-rako deia egiten da (Oinarrizko Eskala eta C-19 Sailkapen-taldea). Udalak lan-poltsa hori baliatuko du lanpostuak aldi batez betetzeko beharrian larria dagoenean. Sarbide libre eta merezimenduen lehiaketa izango da bertara sartzeko sistema. Bitarteko agenteen lan-poltsak 3 urteko indarraldia izango du. Epe hori iraupen bereko aldietan luzatu ahalko da.

Lanpostuaren eginkizunak izango dira unean-unean Udalaren organigrama funtzionalean zehaztutakoak. Gaur egun, hauexek dira:

- Udalerrietako agintariak zaintzea, eta eraikinak eta instalazioak zaintzea.
- Herriguneko trafikoa antolatzea, seinaleztatzea eta zuzentzea, zirkulazio-arauetan xedatutakoarekin bat.
- Herrigunean gertatutako trafiko-istripuengatiko atestatuak egitea.
- Polizia administratiboa, bere eskumeneko ereduaren eta ordenantzei, bandoei eta gainerako udal xedapenei dagokienez.
- Polizia judizial lanak egitea, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Legearen 29.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Laguntza ematea istripuak, zorigaitzak edo hondamen publikoak gertatzen direnean. Eta parte hartzea babes zibileko planetan, legeek aurreikusitako moduan.
- Prebentziozko eginbideak eta delituak egitea ekiditeko helburua duten jarduketak egitea, Segurtasun Batzarretan finkatutako lankidetzaren markoan.
- Eremu publikoak zaintzea. Eta, hala eskatzen dietenean, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin eta autonomia erkidegoetako poliziaekin lankidetzan aritzea, manifestazioetan eta jendetza biltzen duten kontzentrazio handietan ordena publiko mantentzeko.
- Gatazka pribatuak konpontzen laguntzea, hala egiteko eskatzen dietenean.

**Bigarrena. — *Izangaiek bete beharreko baldintzak***

2.1. Basauriko Udaltzaingoaren bitarteko agenteen lan-poltsa eratzeko prozesuan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte izangaiek:

- a) Aurretiaz eskabidea egitea.
- b) Espainiako nazionalitatea izatea.
- c) 18 urte beteta izatea eta, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, 38 urte bete gabe izatea. Gehienezko adinaren muga konpentsatu ahal izango da Euskal Herriko polizien kidegoetan lan egin izandako tarteekin.
- d) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak bitarteko agenteen lan-poltsa eratzeko emandako prestakuntza-ikastaroa gainditu izana egiaztatzea.
- e) Batxiler, FP2, horien baliokidea den edo goragoko kategoria duen edozein mailaren titulua izatea.
- f) Euskal Herriko Poliziaren hautaketa eta prestakuntza-araudia onartzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan osasun-arrazoiengatik baztertua izateko jasotako horietako bat ere ez izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko da bitarteko funtzionario lanpostuaz jabetu aurretik.
- g) Dolozko delituagatik kondenatua izan ez izana, tokiko administraziozko zerbitzutik kendua izan ez izana eta kargu publikoak betetzeko gaitasungabetuta ez egotea. Hala ere, birgaitzearen onura aplikatu ahal izango da, zigor- eta administrazio-arauen arabera, baldin eta izangaiek egoera hori agiri ofizial egokiaren bitartez egiaztatzen badu.



Dolozko delituagatik kondenatua izan ez izanari buruzko, tokiko administrazioko zerbitzutik kendua izan ez izanari buruzko eta kargu publikoak betetzeko gaitasungabetuta ez egoteari buruzko egiaztagiria eskatuko da bitarteko funtzionario izendapena egin aurretik.

- h) Euskal Herriko Poliziaren edozein hautaketa-prozesutik baztertua izan ez izana hutsegite larri edo oso larriren bat egin izanagatik, salbu eta, baztertze-datatik zenbatuta, preskripzio-epearen bestekoa igaro bada.
- i) Bide publikoetan B motako ibilgailuak edo horien baliokideak, eta A-2 motako ibilgailuak edo horien baliokideak gidatzeko baimen administratiboa izatea, Gidarien Araudi Orokorra onartzen duen maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuarekin bat.
- j) Indarreko araudian aurreikusitako legezko ezintasun- edo bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.

Oinarri honetan zehaztutako baldintzak bete beharko dira eskabideak aurkezteko epearen amaitezako, eta indarrean egon beharko dute lanpostuaz jabetzean ere. Salbuespenez, j) ataleko baldintza egiaztatze epea, bitarteko funtzionario izendatzen den data artekoa izango da.

Hautapen-prozesuan onartuak izateko eta bertan parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek beren eskabideetan adieraztea bete egiten dituztela eskatutako baldintzak. Aurrerago, baldintza horiek egiaztatu beharko dituzte.

#### **Hirugarrena. — Eskabideak**

Hautapen-prozesuan parte hartzeko, Basauriko Udalaren webgunean ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)) dagoen eskabide-eredu ofizial normalizatua bete beharko da.

Eskabide horiek alkate udalburuari zuzenduta egongo dira. Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik hasita, 20 egun balioduneko epea egongo da eskabideak aurkezteko.

Onartuak izateko, prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute izangaiek, eta adierazi beharko dute Bigarren Oinarrian adierazitako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela —eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datan bete ere—.

Beraz, izangaiek honako hauek jaso beharko dituzte eskabidean:

- a) Eskatutako datu pertsonalak.

Eskabideari honako hauek erantsiko dizkiete, bakar-bakarrik:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo pasaportearen fotokopia.
- b) Batxiler, FP2 edo horien baliokidearen, edo goragoko edozein mailaren titulua. Bestela, Udalari hori egiaztatze baimen espresua ematea.
- c) Hala badagokio, 2. HEren egiaztagiria. Bestela, Udalari hori egiaztatze baimen espresua ematea.
- d) Hala badagokio, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako bitarteko agenteen prestakuntza-ikastaroa egin eta gainditu izanaren egiaztagiria (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua).
- e) (I. eranskina: administrazio publikoetan lan egin izandako aldiak; Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak tiro egiteko oinarrizko teknikei buruz emandako ikastaroa egin eta gainditu izanaren egiaztagiria, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egindako prestakuntzaren egiaztagiriak).
- f) Bide publikoetan B motako ibilgailuak edo horien baliokideak, eta A-2 motako ibilgailuak edo horien baliokideak gidatzeko baimen administratiboen jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, Gidarien Araudi Orokorra onartzen duen maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuarekin bat.

Eskabidea aurkeztuz gero, joko da interesdunak baimena ematen duela bere datuak (izen-abizenak eta telefono-zenbakia) beste herri administrazio batzuei lagatzeko, pre-sazko arrazoiak direla-eta datuok eskatzen badituzte lanpostu bat betetzeko.



Halaber, eskabideak aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan xedatutako moduan.

Eskabideetan adierazitako datuetara lotuta geratuko dira izangaiak. Datuok aldatzeko, beraz, idatzi arrazoitua egin beharko dute, eskabideak aurkezteko arestian aipatutako epearen barruan. Epe hori igarota, ez da halako eskaerarik onartuko.

Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean jarriko da bitarteko agenteen lan-poltsa eratzeko prozesuari eta bertatik ondorioztatutako egintzei buruzko informazioa. Jakinarazpen eta komunikazio ofizialen balioa izango du horrek.

#### **Laugarrena. — Izangaiak onartzea**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Basauriko Udaleko alkate udalburuak ebazpena emango du, adieraziz onetsia izan dela onartutako eta kanpo utzitako izangaien behin-behineko zerrenda; gero, zerrenda hori jendaurreko jarriko da Udalaren iragarki-taulan eta webgunean, eta bost laneguneko epea egongo da bazter utzitakoek horren aurkako erreklamazioak aurkezteko eta baztertzea eragin duten hutsegiteak zein dokumentuak zuzentzeko.

Ezingo da zuzendu eskabidea epez kanpo aurkeztu izana, ez eta merezimenduak egiaztatzeko agirietan akatsak edo ez-egiteak egotea ere.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, udalburuak ebazpen berria emango du, onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, besterik gabe.

Aipatu ebazpenean Balorazio Batzordearen konposizioa ere jasoko da.

Lehenago adierazitakoa horrela izanda ere, bigarren ebazpen horren ostean, edozein unetan, Batzordeak edozein izangai hautaprobetatik baztertze proposamena egin ahal izango dio Alkatetzari, hautematen baldin badu eskabideak edo horri erantsitako dokumentazioak kanpo uztea dakarren zehaztasunik eza edo faltsukeria duela, eta hori izangaiak baztertze arrazoiak dela. Hala egingo da, hain zuzen ere, akats hori konponezina dela joko delako.

#### **Bosgarrena. — Balorazio Batzordea**

Balorazio Batzordeak erabateko independentziaz, berezko iritziz teknikoaren arabera eta modu objektiboan jardungo du, eta bere proposamenak lotesleak izango dira Administrazioarentzat.

Balorazio batzordeek beren irizpide teknikoaren arabera jardun badezakete ere, batzorde horien erabakiak arrazoiak izan beharko dira, araudiak eta deialdiaren Oinarriek ezarritakoa betetze aldera.

Balorazio batzordeak eratzeko prozedura eta batzorde horien jardura, honako hauek xedatutakoaren arabera izango da: 5/2015 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duena; 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak hornitzeko Araudia onartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.

Balorazio Batzordea honako hauek osatuta egongo da:

— Batzordeburua:

- Basauriko udaltzainburua.

— Batzordekideak:

- Udaltzaingoaren plantillako funtzionario bi.
- Basauriko Udaleko funtzionario bat.

— Idazkaria:

- Basauriko Udalaren Giza Baliabide Ataleko plantillako funtzionario bat, hitz eta boto eskubidearekin.



Deialdiko lanposturako eskatutako titulazio-taldekoak edo goragokoak izan beharko dute Balorazio Batzordeko kideek.

Balorazio Batzordearen osaera zehatza, bestalde, alkatetza dekretu bidez egingo da, eta, titularrez gain, horien ordezkioak ere jasoko dira. Batzordeburuek kalitateko botoa izango dute, berdinketa ematen bada.

Batzordeek deialdia egin duen agintariari eskatu ahalko diote adituak izendatzeko, aholkulari gisa jardun daitezen, hitzarekin baina botorik gabe.

Batzordearen jardura baliozkoa izango da baldin eta batzordeburua, idazkaria eta, gutxienez, batzordekideetako bat, bertan badaude.

Hautapen-prozesuko edozein unetan Balorazio Batzordeak jakiten badu izangaietako batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzetako bat edo gehiago, interesdunari entzunaldia eman ondoren, hura baztertzea proposatu beharko dio eskumena duen organoari, izangaiak eskabidean jasotako okerrak edota faltsukeriak adierazita.

Balorazioko Batzordeak beretzat gordetzen du hautapen-prozesuko edozein unetan jatorrizko dokumentazioa eskatzeko aukera (alegatutako merezimenduen balorazioari dagokiona, hain zuzen ere).

### **Seigarrena. — Lehiaketa**

Lehiaketa egingo dute, bakar-bakarrik, prozesuan onartuak izan direnak.

Bakarrik ebaluatuko dira eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data baino lehen lortutako merezimenduak. Ez dira baloratuko eskabidean egokiro adierazi ez diren merezimenduak.

Lehiaketa-fasea ez da baztertzaileria izango.

Honako hauek baloratuko dira:

a) Lan-esperientzia: gehienez ere, 6 puntu.

Udaltzaingoetan oinarritzko eskalako agente gisa lan egin izandako tarteak: 0,10 puntu hilabete oso bakoitzeko (tarte txikiagoak ez dira kontuan hartuko).

Eszedentzian egon izandako tarteak ez du konputatuko, seme-alabak edota senitartekoak zaintzeagatiko eszedentzia salbu. Kasu horietan, egondako azken lanpostuan konputatuko da eszedentzian emandako aldia.

Administrazioan lan egin izandako tarteak egiaztatzeak, organo eskumenak emandako egiaztapen bidez egingo da (I. eranskina). Egiaztapen horrek zehaztu beharko ditu kategoria profesionala eta lanaldi-portzentajea.

b) Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak:

b.1. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak tiro egiteko oinarritzko teknikei buruz emandako ikastaroa. 3 puntu esleituak zaizkio.

b.2. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eman edo homologatuta dauden prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, baldin eta agente-zereginekin zerikusia badute. Honako baremo honen arabera baloratuko dira, eta, gehienez ere, 2 puntu esleituak zaizkie:

— 8-19 bertaratze-orduko ikastaroak 0,05 puntu.

— 20-39 bertaratze-orduko ikastaroak 0,10 puntu.

— 40-99 bertaratze-orduko ikastaroak. 0,15 puntu.

— 100-199 bertaratze-orduko ikastaroak 0,25 puntu.

— 200 bertaratze-ordutik gorako ikastaroak 0,50 puntu.

Ez dute punturik lortuko prestakuntza-orduak egiaztatzen ez dituzten ikastaroak, ez eta 8 ordutik beherakoak ere.

c) Euskara ezagutzaren balorazioa.

Euskara ezagutzea merezimendu gisa baloratuko da. Jarraian adierazitako puntuazioa emango zaie eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik hizkuntza-eskakizun egiaztapenak edo, bestela, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten



tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (2010eko azaroaren 15eko EHAA) jaso, eta hizkuntza-eskakizunen baliokide diren tituluak aurkezten dituztenei:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 0,55 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 1,10 puntu.

**Zazpigarrena. — Hautapen-prozesuaren emaitza**

Lehiaketa faseko zati bakoitzean lortutako puntu-kopuruen arteko batuketak finkatu-ko du sailkapenaren hurrenkera. Berdinketa egonez gero, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) a) atalean, lan-esperientziarenean, puntu gehien lortu dituenaren alde.
- b) c) atalean, euskararen ezagutzarenean, puntu gehien lortu duenaren alde.
- c) c) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak tiro egiteko oinarritzko teknikei buruz bitarteko funtzionarioentzat emandako ikastaroa egin izana egiaztatzen duenaren alde.
- d) b.2 atalean, prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroenean, puntu gehien egiaztatutako dituenaren alde.
- e) Oraindik ere berdinketa badago, zozketa egingo da.

**Zortzigarrena. — Gainditu dutenen zerrenda**

Hautapen-prozesua amaituta, oposizioa gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du Batzordeak, lortutako puntuen hurrenkerari jarraituta. Zerrenda hori udalburuari bidaliko dio, eta berariaz jasoko du lan-poltsa eratzeko proposamena. Proposamen horrek izaera loteslea izango du, baina berrikusi ahal izango da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako baldintzetan.

**Bederatzigarrena. — Basauriko udaltzainen lan-poltsaren funtzionamendua**

Agenteen lan-poltsa eratu eta gero, bitarteko funtzionario izateko hautagaiak izendatuko dira, Basauriko Udalak agenteen beharra izan ahala. Agenteen lan-poltsa, bestalde, honako xedapen hauek arabera kudeatuko da:

**1. Agenteak, lan-poltsan, zein egoeratan egon daitezkeen**

Lan-poltsa osatzen duten agenteak honako egoera hauetako batean egongo dira: lanean, lan egiteko prest edo aldi baterako bajaran.

- a) Lanean: Egoera horretan egongo dira lan-poltsako kide izan, eta poltsa horren aplikazio-eremuan lanean ari direnak.
- b) Lan egiteko prest: Egoera horretan egongo dira eta, horrenbestez, lan-eskaintzak jaso ahalko dituzte, lan-poltsaren aplikazio-eremuan lanean ez dauden, eta aldi baterako baja egoeran ere ez dauden zerrendakideak.
- c) Aldi baterako baja: Lan-poltsako kideak egoera horretara igaroko dira honako egoera batean daudela egiaztatzen dutenean:
  - 1. Aldi baterako ezintasuna (dela gaixotasun arrunt edo profesionalagatik, dela istripu arruntagatik, dela lan-istripuagatik).
  - 2. Lizentzia hartzeko egoera: haurdunaldi-, erditze- edo edoskitze-lizentzia, edota adopzio zein harreragatiko lizentzia.
  - 3. 3 urtetik beherako seme edo alaben zaintza. Ume bakoitzagatik behin baino ez da emango.
  - 4. Odolkidetasunezko edo ezkontza bidezko ahaidetasunezko bigarren gradu-rainoko senitartekoa beren ardurapean izatea (senidea gaixorik dagoelako edota adinekoa delako), eta ahaide horrek zaintza jarraituak behar izatea. Agiri bidez egiaztatu beharko da egoera hori.





5. Lan-kontratua sinatuta izatea; administrazio publiko baten izendapena jaso izana, edota Gizarte Segurantzaren autonomo gisa alta emanda egotea.

Aldi baterako baja egoerara igarotzea ahalbidetzen duten arrazoiak agiri bidez egiaztatu beharko dira, lanpostua betetzeko deialdia jasotzen den dataren biharamunetik 3 egun naturaleko epean. Aldi baterako baja egoera eragin zuten arrazoiak amaitu eta gero, edo, hura borondatezko egoera baten ondorio bazen, lehenago, interesdunak horren berri eman beharko du, hala egin izana jasota uzten duen edozein bide erabilita.

Aldi baterako baja egoeran daudenek ez dute lan-eskaintzarik jasoko egoera horretan dauden bitartean.

## 2. *Lanpostuak betetzeko deiak*

2.1. Giza Baliabideen Atalak deitu egingo die lan egiteko prest daudenei, lan-poltsako hurrenkerari jarraituta.

2.2. Lanpostuak derrigorrezko 2. HE duenean, hura egiaztatuta duen eta lan egiteko prest dagoen lehenengoari deituko zaio, lan-poltsaren hurrenkerari jarraituta.

## 3. *Eskaintzen berri ematea*

3.1. Deia egin dela, eta, hala badagokio, izangaiarekin hitz egin dela jasota gertatzen den edozein bide erabiliko da jakinarazpena egiteko. Lehenengo, telefono bidezko saiakera egingo da: hiru aldiz deituko da, egun berean zehar. Ez bada posible izan izangaiarekin hitz egitea, mezu elektronikoa bidaliko zaio, mezu hori jaso eta irakurri izanaren ohartarazpenarekin. Horrenbestez, lan-poltsako kide guztiek telefono-zenbaki bat ala batzuk eta helbide elektronikoa bat eman beharko diote Giza Baliabideen Atalari.

3.2. Lan-eskaintza helbide elektronikoa bidez egin bada (ez delako posible izan zerrendakidearekin telefonoz hitz egitea), mezua jaso duena harremanetan jarri beharko da Giza Baliabide Atalarekin, 24 orduko epean. Epe hori zenbatzen hasiko da eskaintza bidali zen unean bertan. Epe hori igarota hautatutako pertsona ez bada harremanetan jarri, zerrendako hurrengoari deituko zaio.

3.3. Hautatutako pertsonak, lan-eskaintza zehatzaren berri duen unetik, 12 orduko epea izango du jakinarazteko ea eskaintza onartzen duen ala uko egiten dion. Ez badu jakinarazpenik egiten, edo eskaintakoari uko eginez gero, lan-poltsatik kendua izango da, ez bada aldi baterako baja egoerara igarotzeko arrazoietako bat ematen dela. Era berean, hautatutako zerrendakidea lan-poltsatik kendua izango da baldin eta lan-poltsan bere borondatez alta eman eta gero, eskaintza bat jaso, eta eskaintza horri uko egiten badio lehenago aipatutako arrazoi bera argudiatuta edo lehenago aldi baterako bajara igarotzeko aurkeztutako beste administrazio bateko kontratu bera aurkeztuta.

Giza Baliabideak ezin bada zerrendako kideren batekin harremanetan jarri atal honetako 1. zenbakian aurreikusitako moduan, kide horri posta-jakinarazpen ziurtatua bidaliko zaio, hartu-agiriarekin; eta adieraziko zaio ezinezkoa izan dela harekin harremanetan jartzea. Jakinarazpena egin eta 10 egun naturaleko epean interesdunak ez badio Giza Baliabideak idatzia bidaltzen adieraziz egoera konpondu nahi duela, lan-poltsatik kendua izango da.

## 4. *Lan egiteko obligazioa*

Lanpostua eskainiz gero, izangaiak izendapena onartu, eta dagokion lana egin beharko du, ez bada 1. puntuan jasotako arrazoiaren bat dela-eta bidezkoa duela aldi batez bajan egotea, Giza Baliabideen Atalari jakinarazi arte lan egiteko prest dagoela.

## 5. *Izangaia lan-poltsatik kentzea*

Hona hemen lan-poltsatik kanporatua izateko arrazoiak:

- Izangaiak bere borondatez uko egitea bitarteko funtzionario izendapenari.
- Aldi baterako baja egoerara igarotzea eragin duen arrazoiaren ziurtagiria 3 egun naturaleko epean ez aurkeztea.



- c) Dolozko delituagatik zigortua izatea; diziplinazko espediente bidez administrazio publikoaren zerbitzutik kenduta egotea, edo funtzio publikoa egikaritzeko desgaituta egotea. Hala ere, birgaitzearen onura aplikatuko da, zigor- eta administrazio-arauen arabera, baldin eta izangaiak egoera agiri ofizial egokiaren bitartez egiaztatzen badu.
- d) Udalak izangaia lanpostutik kentzea kontrako administrazio-espediente baten ondorioz, baldin eta espediente horretan egiaztatuta geratzen bada izangai horrek lanpostua betetzeko gaitasun falta duela (langileak, bere zereginak alde batera uzteko asmorik ez badu ere, errendimendu baxua duelako eta ezinezkoa duelako lanpostuari dagozkion eginkizunak egokiro betetzea).
- e) Jakinarazpenetik ezarritako epea igaro eta gero ere, izangaia aurkitzeko moduan ez egotea.

Aurreko ataletan xedatutakoa gora behera, Giza Baliabide Atalak jakingo balu, edozein unetan, bat-batean gertatutako arrazoiengatik lan-poltsako kideren batek ez dituela betetzen Udaltzaingoko oinarritzko agente lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, kide hori lan-poltsatik kendua izango da, Basauriko alkate udalburuaren ebazpen bitartez.

#### **6. *Hizkuntza-eskakizunak lan-poltsa osatu ostean aurkeztea***

Zerrendakideek edozein unetan aurkeztu ahalko dituzte lan-poltsa eratu ostean lortutako hizkuntza-eskakizunak.

Dena dela, aurkeztutako hizkuntza-eskakizun horiek ez dute interesdunen puntuazio osoa handituko: lan-poltsa eratzean finkatutako hurrenkera mantenduko da.

Bestalde, hizkuntza-eskakizunak egiaztatuko dira Giza Baliabide Atalean titulu edo egiaztagiria ofiziala aurkeztuta.

#### **Hamargarrena. — *Bitarteko funtzionario izateari uztea, lan-harremana errebokatzea edo berau azkentzea***

Bitarteko funtzionario izateari utziko zaio Enplegatu Publikoaren Estatutu Publikoaren Legearen Testu Bategina onesteko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiak ematen direnean edo bitarteko funtzionarioa izendatzea beharrezkoa egin zuten arrazoiak desagertzen direnean.

Izendapena ezeztatua geratuko da honako arrazoi hauetako bat tarteko denean:

- Bitarteko funtzionario lanpostua karrerako funtzionario batek betetzen duenean, araudiak aurreikusitako sistemetako baten bidez.
- Plaza bat-batean amortizatzen denean.
- Udalak jotzen duenean dagoeneko desagertu egin direla bitarteko funtzionarioaren beharrezana eragin zuten premiatasun arrazoiak.

#### **Hamaikagarrena. — *Gorabeherak***

Balorazio Batzordeak sortutako zalantzak ebatzi ahalko ditu, eta hautapen-prozesuaren martxa egokirako beharrezkoak diren erabakiak hartu ahal izango ditu —oinarri hauetan ezarrita ez dagoen guztiari dagokionez—.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta bertatik zein Balorazio Batzordearen jardueratik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako kasuetan eta moduan.

Oinarrietan aurreikusi ez diren kasuetarako, honako hauei erreparatuko zaie: Estatu-ko Administrazioen zerbitzura diharduten langileak sartzeko araudi orokorra (364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa); Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen 6/1989 Legea eta horren eta osteko haren aldaketa, eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.



**Hamabigarrena. — Izaera pertsonaleko datuen babesa**

Hautapen-prozesuan zehar jasotako edo sortutako izaera pertsonaleko datuak kudeatuko dira datuen babeserako indarreko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da. Fitxategi hori bakar-bakarrik erabiliko da hautapen-prozesua eta aldi baterako kontrataziorako zein bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa kudeatzeko.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du baimen espresua ematen dela segurtasun-neurriak behar dituzten, eta hautapen-prozesurako beharrezkoak diren beren datu pertsonalak tratatzeko.

Hautapen-prozesuan zehar emandako datuak laga ahal izango zaizkie horiek eskatzen dituzten administrazio publikoei. Izangaiek nahi badute titularrak diren izaera pertsonaleko datuak lagatzea, horretarako baimen espresua eman beharko dute.

Hautapen-prozesuan parte hartzen dutenen informazio-eskubidea bermatzeko, Internet bidez kontsultatu ahalko dira prozesuaren zerrendak, lehenago adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan.

Eskabideetako helbidea, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoa baliozkotzat joko dira. Eskabidea egiten duenari dagokio datuetan egon daitezkeen akatsez ohartaraztea edo eman daitezkeen aldaketen berri ematea.

Eskabidean jasotakoa izango da jakinarazpenetarako helbidea, ez bada ostean, espresuki eta sinesgarriro, beste bat adierazi zaiola deialdia egin duenari.